

Berri berria AEKn

Ikasturte honetarako AEK, Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundeak euskaltegi propio bat izango du.

Urte asko pasa behar izan dira, betidanik irakasleen gogoetan egon den proiektu hau atera den arte. Azaroaren erdialderako zabalduko den hau Bizkaia Etorbidean dago kokatuta. Gehiago jakin nahian AEKra hurbildu gara, eta bertan Ikerrek eman digu honen berri.

-Euskaltegi berria martxan jarriko da aurtun, nondik datorkizue hau sortzeko ideia? Zergatik?

-Ermuan euskaltegi propioa izatearen ideia betidanik izan dugu. Orain arte izan ditugun lokal bakarrak Santa Anan ditugun bi gela izan dira, eta hauekin bakarrik ez genuen asetzen euskara ikasteko zegoen eta dagoen eskaera; horregatik eskola publikoak erabili behar izan ditugu. Hala ere, ez da nahikoa izan, ordutegiek murriztak izaten jarraitzen baitute. Lokal propioa izateak eskaintza zabalago baten aukera ematen digu,

inor gelditu ez dadin euskara ikasi gabe lokal falta dela eta.

-Nondik datorkizue proiektu berri honen finantziazioa?

-Dirua AEKk jartzen du. Dakigunez, AEKk diru bat dauka eta horrekin Euskal Herriko egoera osoa konpondu behar izaten du. Euskal Herri osoan dauden beharrak aurreikusten dira eta aurtun, inbertsioen puntuan hainbat tokitan euskaltegia eraikitzea erabaki da eta hoiene arteko bat Ermukoa da, Donostiako Amara auzokoa beste bat eta horrela hiruzpalau.

-Beharretaz ari gara, zeintzuk dira zuen ustez Ermuak euskararekiko dituenak?

-Potentziala izugarria da. Momentu honetan 300 pertsona daude euskara ikasten; erdia gutxigorabehera AEKn eta beste erdia Udal Euskaltegian. Udal Euskaltegiak plaza mugatuak dituela batetik eta AEKk batez ere gaueko ordutegia eskaini ahal izan duela

bestetik kontutan hartuta, pentsa genezake euskaltegi berriarekin jende gehiagorengana helduko garela. Batek daki, baina sorpresa haundiak har ditzakegu.

-Ordutegi berriak aipatzen dira behin eta berriro, zeintzu izango dira ikasturte honetan?

AEKren kanpaina bateko irudia 11etara, arratsalde 2etatik 4etara eta 4etatik 6etara, 7etatik 9ak bitartekoa ere, noski, mantenduko dugu. EGArako talde berezi bat izango da larunbat goizetan.

Bestalde, prest gaude beste edozein proposamen kontutan hartzeko. Orain arte, astean zortzi ordu eman ditugu normalean, baina dagoeneko, pertsona bat etorri zaigu egune-



OKINDEGIA
Ignacio Peña



Okindegiko ☎ : 17 01 69

Etxeko ☎ : 17 14 55

Goienkalea, 12 - behea **ERMUA**



ARTARRAI
OPARI DENDA

Goienkale, 5 • telf. 17 44 19
ERMUA



ELEKTRIZISTA

José Angel Ziarso Izaguirre

Izelaieta kalea, 4
☎ 17 29 38 - Merkatuan, 17 47 30




Oinetakoak

Sexto Centenario, 17
(943) 17 13 44 Tfnoa.
48260 ERMUA Bizkaia

GADIFOL -en
Aukera guztiak
KODAK garantiaz
Komentukoa, z/g.
Tlf. eta Faxe: 17 06 71

MARFIL
ILEAPAINDEGIA
EDERTZE-ARETOA eta
MEDIZINA ESTETIKOA



Zubiaurre, 32 behegainekoa
17 28 09 Telefonoa.

ko bi ordu izan beharrean hiru ordu izatea proposatuz, eta aterako balitz gu prest egongo ginateke hau edo bestelako moldaketak egiteko. Gaztetxoenei begira, 12 eta 16 urte bitartekoei hain zuzen, astean lau ordu egitea proposa-tzen diegu, zortzi astunegi egiten bait zaie.

-Euskaltegia "euskara eskola" izateaz gain, beste zerbaiz izango al da?

-Gure funtzio bakarra ez da euskara irakastea, euskaraz bizi daitekeela transmititzea ere bada. Euskararen inguruan egiten diren ekimenak bultzatzen ahalegintzen gara eta horretan gure ikaslegoa "pringatzen".

AEKk ikasleei begira lan handia egiteaz gain, gizarteari begira ere ekintza asko burutzen ditu, horra hor, Korrika, AEKnapada eta herri mailan egiten diren beste hainbat eta hainbat gauza.

Orokorrean, euskararen normalizaziorako defentsan egiten diren aktibitate guztietan gaude, hala nola, Nafarroa Oinez, Herri Urats,...

-Jendeak ba al dauka euskaltegi berriaren berririk?

-Baietz uste dugu. Ahalegindu, ahalegindu gara. Santixauetan ekin genion propagandari. Triptiko bat atera genuen euskaltegiaren kokapen eta eskeintzen berri emanez. Komunikabideetan ere zertxobait azaldu da. Horretaz aparte, egun hauetan buzoiz-buzoi ariko gara, eta kartelak ere jarriko ditugu. Egia esan, nabaritzen da; jende asko etorri zaigu galdezka.



Ermuko AEKko ikasleak ikasgelatik kanpoko ekintzetan. Euskarak ondo pasatzeko aukera ugari eskeintzen du.

-Matrikulazioa hasia da dagoeneko, zer moduz doakizue?

-Lehenengo bi asteetan 68 pertsona apuntatu dira, oraindik denbora falta da eta normalean jende gehiena azken egunetan matrikulatzen da. Orainartekoa ikusita badi-rudi aurtun beste urte batzuetan baino jende gehiago izango dugula. Agian euskaltegi berriarekin batera zabalduko ordutegiei esker, ez dakit, baina jende dexente hurbildu zaigu.

-Kontaguzuz noiz hasiko diren klaseak, non eta zenbat ordaindu behar den matrikula...

-Klaseak urriaren 3an hasiko dira Teresa Murga eskola publikoan. Kurtso osoko matrikula 28.500 pztakoa da; edozein kasutan, esan behar dugu epeka ordaindu ahal izateaz gain, beka sistema bat ere izango dugula. Ikasle edo langabetuak diren ikasleei matrikularen erdia bueltatuko zaie kurtso bukatu-ran. Iaz, Udaletik jasotako dirulaguntza bati esker lortu genuen, eta aurtun ere lortuko dugulakoan gaude. Azken finean guk eskaintzen duguna zerbitzu publiko bat da eta beraz, Udalak badauka honetan erantzunkizunetik, ez aurtun bakarrik, baita etorkizunera begira ere.


Bea Narbaiza

EKINTZA

ESKOLAKO MATERIALEA.....

FOTOKOPIAK.....

FAX PUBLIKOA.....



Goienkale, z/g • Tlf. 17 20 08

GOZOTEGIA
DASTATEGIA

Delicias

• Berton egiten dugu
• Etxera eramaten dizugu
Valdespina, 9 Zubiaurre, 2
Tfnoa. 17 15 67

ESKA EHUNAK

• Jantziak egiten dira
• Ebaketa ta jantzigintzazko klaseak ematen dira

Goienkale, 9 • Tlf. 17 44 69



Ermuko Merkatua, 54 eta 55 postuak • ☎ 17 41 01
Arrasateko Merkatua • ☎ 77 05 98

ARRIETA CORDEVI

Elektratresnak, telebistak, bideoak,
musika aparatoak...
prezio eta kalitate ezin hobean.

VI. Centenario Kalea, 5 ERMUA